



Amara TABALDI

Dalerran asteburuan herriko plazan izango den 1.000 metroko karpan, sagardotegi orotan bezala, ez dira jana eta edana faltako.

Joseba Barandiaran plaza sagardotegi erraldoia izango da II. Txotxberri festan

Sagardotegietako giroa «baserrietatik herriko plazara» ekarri nahi dute antolatzaileek

Gertu da aurtengo txotx denboraldiaren hasiera. Hilaren 19an, San Sebastian egunaren bezperan, zabalduko baitituzte euren upelak hainbat eta hainbat sagardote-

gik. Edari honen txoko maiteenetako bat, Astigarraga, erabat eraidatuko da datozen hilabeteetan. Hala ere, gau parteko parrandak antzemango ditu, nagusiki, sagar-

do denboraldiaren ondorioak. Hau kontopontzekotan antolatu dute bigarren aldiz Txotxberri festa, «sagardotegietako benetako giroa herriko plazara ekartzeko».

Amagoia MUJICA | ASTIGARRAGA

Datorren astean, San Sebastian egunaren bezperan, Astigarrako sagardotegi askotako upelak zabaldu egingo dira, aurtengo txotx garaia hasiko baita. Sagardo gune garrantzitsua izaki, datozen hilabeteetan antzemango du aldaketarik herri honek, gau giroko parrandari dagokionez nagusiki.

Edari honen denboraldi berria, ordea, urtero legeaz sagardotegi batean estreinatuko da. Ondorioz, gaueko parranda izan arren, txotx garaia arrastorik apenas izaten da herri gunean bertan. Gabezia hau kontopontzeko asmoz, joan den urtean herriko tabernariak Txotxberri festa antolatu zuten. Aurtur ere izango da aipatu ekinena, antolakuntzaren lekukoa zenbait kultur elkarte hartu duten arren. Izan ere, Txotxberri aurtur izan duen berrikuntza garrantzitsuenak haxe izan da «tabernariak gain herriko kultur taldeen parte-hartzea».

Atzo izandako aurkezpenean Edurne Santa Kruz antolatzaileak adierazi zuenez, «Txotxberri festak sagardotegietako giroa baserrietatik herriko plazara ekartzea du helburu». Hala, datozen 19, 20 eta 21 egunetan, Astigarrako Barandiaran plaza sagardotegi erraldoi bihurtuko da; «txotx giroa herri gunean bertan sortzekotan».

Herriko plaza nagusia sagardotegi erraldoia izango da datorren asteburuan, bertan izugarriko karpa bat ezarriko baita funtzio hau betetze aldera. Ostiralean, hilak 19, txotxa zabalduko da eta Astigar dantza taldearen eskutik sagar dantza

ikusteko parada izango da. Haur jolasak, trikitilariak, abesbatzak, dultzaineroak... denetarik bilduko du II. Txotxberri festak.

Sagardotegi munduan jana eta edana ezinbestekoak direnez, larunbat gauean, hilak 20, herri afaria izango da aipatu karpan. Ondoren, Tapia eta Leturiaren emanaldiaz gozatzeko aukera ere izango da. Igandean, berri, herri bazkaria izango da. Bai afaria, bai bazkaria sagardotegiko menuak osatuko dute eta sukaldari lanetan Intxaurrondoko elkarte gastronomikoa arituko da. Edaria, berri, Astigarrako

zazpi sagardogileren esku izango da.

Jana eta edana ardatz nagusi izango diren arren, kirol pixka bat egiteko aukera ere izango da. Igandean, hilak 21, goizeko zortzietan sagardotegiz sagardotegi joango den mendi irteera abiatuko baita. Zipotza mendi taldeak antolatuta, Joseba Barandiaran plazatik hasi eta Astigarrako sagardotegi guztietan izango dute geldialdia mendizaleek, edo sagardoaleek, mendiaz zein sagardoaz gozatzeko aukera aparta eskainiko baitu mendi irteera honek.

Honetaz gain, igandean bertan abere eta barazki azoka izango da, baita artisautza erakusketa ere. Eguerdiko 12.00ak aldera, II. Bakailao Tortilla lehiaketa izango da. Bazkalostean, berri, herri kirolak eta pottokak. Aurtengo Txotxberri festari amaiera emateko, Bigira trikiti taldearen erromeria izango da.

Edurne Santa Kruzen hitzetan, «jazkoa lehenengoa izanik eta 1.000 metro karratuko karpa izugarria zela kontuan hartuta, festa polita izan zen». Ea aurtur ere bide beretik jarraitzen duen Astigarrako Txotxberri festak.

E L K A R R I Z K E T A

Jose Angel GOÑI | Gurutzeta sagardotegiko jabea

«Lasai gaude, haragi ona izango da eta»

Uza eskasa eta behi eroen kontua dela eta, askoren ustez 2001a ez da ona izango sagardotegientzat. Jabeak, ordea, lasai daude, «kalitateko haragia eta sagardo ona» prest baitituzte.

Zer moduzko sagardoa izango da aurtengoa?

Kanpotik sagar asko ekarri behar izan dugun arren, aurtur ere sagardo ona izango dugu.

Sagar uzta txarra izan da, ala?

Bai, Kantauri itsaso ondo honetan uzta oso eskasa izan da eta

kanpotik sagar asko ekarri dugu, frantziar Estatutik. Hemen go sagarra ere erabili da, baina beste urteetan baino gutxiago.

Zenbat sagardo litro ekoitzi dituzue Astigarragan?

Beste urteetan bezalatsu; agian, zertxobait gutxiago, baina antzeko. Guztira bost milioi litro inguru ekoitzi ditugu.

Behi eroen kontuak eraginik izango duela uste al duzu?

Gu lasai gaude. Haragi ona izango da, horretarako ari dira ikerketa horiek guztiak egiten. Gu ez gaude batere kezkatuta,

jendeak ondo erantzungo duela uste dugu.

Zein garaitan joan ohi da jende gehien sagardotegira?

Hasiera ez da oso ona izaten, otsaila erdialdean hasten da jende gehien gerturatzeko.

Kanpoko jende asko gerturatzeko al da Astigarraga?

Batzuk etortzen dira. Gainera, badira astero-astero etortzen diren bezero fidelak. Hauek bertakoak izan ohi dira eta astean zehar etorri ohi dira.

Zer esango zenieke sagardoaleei denboraldia hastera doan honetan?

Animatzeko eta sagardotegietara etortzeko, aurtur ere sagardo ona izango da eta. *

Amagoia MUJICA